# ZZ eragilea : CLAVETTE & CIE

***Lekua :*** Bokale

***Aktibitatearen aurkezpena :*** txirrindula zale batzuek sortua, Clavette & Cie-k, bizikletaren erabilpena era guzietan bultzatzea du helburu, jakidura teknikoak eta ondare historikoa, kulturala eta materiala transmitituz.

06 52 74 66 60

clavette.cie



## Anne-ri hitza

**Elkartearen Lehendakaria**



***Clavette & Cie elkartea nola sortu zen?***

Aturriko eskuin aldeko biztanleok, bi oharretaz abiatu gira: bizikletaren erabilpen ahula hiritarren partetik eta horren inguruko zerbitzu eza ibaiaren alde honetan. Gure nahia, lurralde honek teknika mailan behar zituen guneen horniketan parte hartzea izan da, geroari begira beste batzuk sortzeko asmoarekin. Tailer bat baino gehiago, ekimen kulturalen bidez bizikletari dedikatzen den leku partekatu bat da.



***Zertan parte hartzen duzue ZHZXan ?***

Elkarteen bizikleta tailer ainitz bezala, hondakinen murrizketan parte hartzen dugu, botatuak diren bizikleta zaharrak berreskuratuz eta konponduz, berriz zirkuitoan sartzeko. Partaidetza pribatu eta jendearen gana jotzen dugu, bigarren eskuko piezen biltzeko.

Berrerabilpenetik haratago joateko, Ziklo FabLab bat plantan ematen dugu bizikleta osagai berri batzuen sortu ahal izateko.

***Zoin abilezi emango zenuke ZHZX dinamikan hasteko ?***

Bizikletari dagokionez, mantenimendua da gakoa!! Gurpilak hantu, katea olioztatu, pinoiak eta gurpil uztaiak garbitu, hauek dira bakoitzak errexki egiten ahal dituen gauzak.

Baina lehen gauza, egokia zaizun bizikleta hautatzea da. Ez zira mendiko ibilaldi bat egitera joanen takoi zorrotzekin... txirrindula gauza bera da !!

